

**2009ko APIRILAREN 2an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko apirilaren 2an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen dute: Adela Mendiola Gomez
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
- 2009ko martxoaren 5ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Manuel Larramendi Kultur bazkunari 2009 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.**
- 4. 2009 urterako langileen egutegiak onartzea, hala badagokio.**
- 5. Tolosako Komunikabideak S.L.-k eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA
BADAGAKIO.**

- ▣ 2009 urteko martxoaren 5eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

05/2009etik –31/2009ra Alkatetza Ebazpenak, non Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapenak onestea ebazten dutena.

32/2009 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 31koa, Diana Lopez Rodelgo eta Adalberto de Jesus Castillo Gutierrez jaun/andreari Larraulgo Udaleko biztanleen erroldan baja ematea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2009 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Bertaratuek aho batez erabakitzen duten gaia mahai gainean uztea, gaia hobeto aztertu arte.

LAUGARREN PUNTUA
2009 URTERAKO LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2009 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2009 urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA
TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.-k EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik Tolosako Komunikabideak S.L. k eskaera, non 28 Kanala-Telebistak eskeiniko duen telebistako informazio eta aisialdi zerbitzuek 2008 eta 2009 urterako diru-laguntzuntza eskaera egiten duten.

Ikusirik 2009 ekitaldiko aurrekontuetan Larraulgo Udalak ez duela diru-laguntza hori emateko partida ekonomikorik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosako Komunikabideak S.L.k eginiko diru-laguntza eskaera ez onartzea, Udal aurrekontuetan ez dagoelako partidarik diru-laguntza hori emateko.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako Komunikabideak S.L. ri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

REPSOLGAS	426,33
REPSOLGAS	173,54
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	89,24
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	67,57
IBERDROLA	333,18
IBERDROLA	16,88
IBERDROLA	159,30
IBERDROLA	17,97
EUSKALTEL	185,82
IBERDROLA	46,27
IBERDROLA	292,04
EBA ERKIZIA	483,03
JOXAN ALTUNA	123,80
GIPUZKOAKO URAK, S.A.	7.268,14
IZFE	1.737,68
IZFE	371,20
BABESA SUZAI, S.A.	64,38
ARGITU ASESORES	142,45

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **12.031,24** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

7.1.TOLOSALDEA GARATZEN: AUZOLAN PROGRAMA DIRU EKARPENA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2009ko urtarrilaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean aurrertzen denaren arabera, Auzolan programaren barruan Larraulgo Udalari egin zaion lanengatik dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 1.000 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Mendi eta bide bazterren garbiketa 2008-2009 Auzolan Programaren barruan, Tolosaldea Garatzeni 1.000 eurotako diru ekarpena egitea.

BIGARRENA: 1.000 eurotako gastua onestea.

7.2.TOLOSALDEA GARATZEN: GESTIO PLANAREN DIRU EKARPENA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2009ko urtarrilaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2009 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.095 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen da, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena martxoaren 30ean eta bigarrena irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen, 2009urteko lehen ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.

7.3. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2009 URTEKO 1. HIRUHILABETEAREN EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2009ko apirilaren 2an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2009 ekitaldiko 1. Hiruhilabetearen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 7.191,47 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 7.191,47 eurotako ekarpena burutzea 2009 ekitaldiko 1. Hiruhilabetearen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2009 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea

ZORTZIGARREN PUNTUA ERREGU ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA